

## Paternalismo gixaxo au noiz arte?

*Alderdi*, 268. zk., 1971-10.

Ezaguna da basa-nagusiak, diktadoreak, beti aotan duten lelo santua: erria politika maillan bear bezala eldu arte berak artutako lan *neketsu* ori ez duela utziko.

Noiz eltzen ote da erri bat?

Gizonak bere *gizatasuna* iñoiz iritxiko badu, bere buruaren jabe izaten ikasteko bideak idekitzen joan bear du. Leen aurrari eta gero gazteari dagozkion erantzun-berrak larriegiak direla-ta aurra seaskan uste bada, oraindik bizar tartean galduta daukan biberoiarekin ilko da bertan.

Ageri-agerian dagoena da, noski diktadoreen aitzeki ori komeni zaion gezur bat dela. Aundi-naiak eta aginte-goseak gizona edonora eramaten du, eta laguntzailleak eta koldarrak ondoan dituen bitartean ontan jarraituko du; ez da gaurkoa; ixtorian zear (bai eskubi aldetik eta baita ezkerretik ere) gizonak aspaldi ikusia du erriz-erri jokabide ustel au.

Politika onen ondorenak izugarriak dira.

Denak ondo dakigunez, orain dela illabete pasatxuan Francok, il zorian dagoen elbarri onek, orain dela 35 urte luze nagusitza artu zuen urtebetetzea dela-ta, preso batzuei indulto edo barkapena ematea erabaki du. Batzuk alaxe uste izan dute: Francok noizean bein erakutsi nai izaten duen biotz onaren eragin maitekor bat dela. Ez baitute batzu oiek egia ikusteko bide erosorik arkitzen. Baiña emendik kanpora ere ondo oartu diren bezala, erriko eta oraindik umetzat jota gaituzten gizonok ba dugu oraindik ori garbi ikus aal izateko zirrikito txiki bat buruan, eta garbi ageri izan dena da barkapen-dekreto ori orain dela illabete bat berebiziko diru pillaren erantzunik ematen jakin ez zuten gizon batzuk ezpetxetik libratzeko egiña izan den azpijoko makur bat izan dela; ez da izan, ez, gure erriko ainbat seme-alabari atek pixka bat idekitzeko asmotan, ez. Matesako amar lapurri etxerako bidea zabaltzeko baiño.

Noski: lapur oiek gizon egiñagoak, elduagoak, dire diktadorearentzat (bere naira makurtuak baititu aspaldi) basa-nagusiarekin ados ez diren gure gazteak baiño.

Erriak ba dute erritasunari dagokion zama sorbaldan artzeko, bai bizkarra eta baita eskubidea ere, eta beti egalpean euki nai duen basa-nagusia ankaz-gora botatzeko eskubidea eta eginbearra ere. Ez dugu iñoiz, eta orain ere ez, paternalismo ankerrik bear eta nai. Aurra bezala tratatu gaituzten jainkotziki bigotedun (bai gorri, bai zuri) oiek mundu ontako pazientzia aspaldi bete dute; gure erriko gizonei besteei aiñeko bizarra atera zaio, eta ez gaitu ezerek beldurtuko.

*Bat* osorik ez bagera ere, *anai* eta *erri* bezala jokatzen ikusi bear dugu, ikasi bearko dugu, odolez eta asmo-nagusiz kide eta señide geranok.

Gaiñontzeko bidetxurrak gero eta elkar emanaz eta bakoitzari berea aitortuaz egingo ditugu, egin bearko ditugu.